

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

2022/23 Memoria. EHUgune - Konpromisoa eta Eragin Sozialeko Zuzendaritza



Aurkibidea

- › Aurkezpena
- › Giza taldea
- › Unibertsitate solidarioa: Garapenerako Lankidetzak
- › Unibertsitate solidarioa: Gizarte konpromisoa
- › EHUgune
- › Eragin soziala
- › Lankidetzak



EHUguneko zuzendaritza. Konpromisoa eta eragin soziala

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzaren mendeko zuzendaritzaren **helburua** da: UPV/EHUren eta euskal gizartearen arteko elkargunea eta konpromisoa sustatzeko jardun lerro estrategikoak diseinatzea eta planifikatzea, gizarte, kultura, ekonomia eta politika arloko gai interesgarriak aztertzeko.

Lankidetzaren Bulegoa: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren bultzatzea, hau da, unibertsitateko kide guztien ahalegin solidariotzat hartuta, Hegoalde globala osatzen duten herrialdeen gaitasunak indartzera bideratuta, batez ere goi mailako hezkuntzan.

Gizarte konpromisoa: gizartearekin konprometita dagoen eta gizarteratze, ekitate eta jasangarritasun balioak sustatzen dituen unibertsitate bateranzko aldaketa bultzatzea.

EHUgune: hausnarketa kolektiborako gune irekia da, euskal unibertsitate publikoak sortzen eta biltzen duen ezagutza kezka sozialen zerbitzura jartzea bilatzen duena, kultura zientifikoa eta eztabaidaren kultura sustatuz.

Eragin soziala: UPV/EHUren eragin sozialean oinarrituta neurtzen eta kudeatzen laguntzea, eragiten duen eraldaketa soziala eta ekaritzen duen balioa eta berrikuntza soziala egiaztatzeko.



Giza taldea

David Hoyos

Zuzendaritza
ehugune@ehu.eus



Estibaliz Martínez

Garapenerako lankidetzeta
oficop@ehu.eus



Felipe García

Gizarte konpromisoa
iraunkortasuna.gizartea@ehu.eus



Sara Trazancos

Eragin soziala
saragabriela.trazancos@ehu.eus





Unibertsitate solidarioa: Garapenerako Lankidetzza





1. Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako Praktiken eta Lanen (GRAL) Programa





Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako Praktiken eta Lanen (GRAL) Programa

Ikasleei nahitaezko praktikak eta GRALa lankidetzara erakundeek garapen bidean dauden herrialdeetan egiten dituzten proiektuetan garatzeko aukera ematen dien programa.

20. edizioan, 41 ikaslek (% 82,9 emakumeak, % 17,1 gizonak) parte hartu dute, UPV/EHUko 10 ikastegitakoak, eta 9 herrialdeetan egin dituzte beren praktikak eta GRALak.



+ info.





Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako Praktiken eta Lanen (GRAL)

Gainera, 2023ko maiatzaren 23an ospatu zen Garapenerako Lankidetzaren inguruko **Unibertsitate Praktikak eta Gradu Amaierako Lanak egiteko programaren 20. urteurrena**, Bizkaia Aretoan.

Ekitaldian izan ziren errektorea eta programaren hainbat ediziotan parte hartu duten irakasleak, ikasleak eta lankidetzaren erakundeen ordezkariak. Vanessa Sanchezek egin zituen moderatzaile lanak eta perkusio talde batek alaitu zuen giroa.





Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako Praktiken eta Lanen (GRAL)

Aitortza BEREZIAK:

- **Ikasle parte hartzaile % handiena izan duen IKASTEgia:** Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (330 ikasle).
- **Programan ikasle gehien tutorizatu dituen IRAKASLEA:** Arrate Aguirrezabal, UPV/EHUko Psikologia Fakultateko Garapenerako Lankidetzako Praktiken arduraduna (41 ikasle).
- **EUSKADIKO LANKIDETZA ERAKUNDEA:** HAURRALDE FUNDAZIOA (369 ikasle).

• Programa BULTZATU duten pertsonak:

- Iratxe Amiano, lehen, UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria.
- Clara Murguialday, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoko lehenengo teknikaria.
- Espe Etxeandia, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoko lehenengo administrazio laguntzailea.



Praktika akademikoetako tutore eta/edo UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako eta/edo Master Amaierako Lanen zuzendari lanak egiten dituzten irakasleen mugikortasunerako laguntzak (IRAKOOP)

Deialdi honek praktika akademikoetan tutore eta/edo Garapenerako Lankidetzako Proiektuetan GRALeko zuzendari lanak egiten dituzten irakasleen eskura jartzen ditu UPV/EHUko ikasleen xede diren garapenerako lankidetzako proiektuetara bidaiak guztiz edo partzialki finantzatzeko laguntzak. Bidaia horien helburu nagusia da UPV/EHUko ikasleek lankidetzako proiektuetan egiten dituzten jarduerak gainbegiratzea, baita UPV/EHUko ikasleek landu ditzaketen premia edo erronka berriak identifikatzea eta lankidetzako proiektuetan tokiko komunitateekin harremanak estutzea ere.



+ info.





Praktika akademikoetako tutore eta/edo UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Gradu Amaierako eta/edo Master Amaierako Lanen zuzendari lanak egiten dituzten irakasleen mugikortasunerako laguntzak (IRAKOOP)

UPV/EHUko hiru irakaslek jaso zuten 2022/23 ikasturtean [IRAKOOP deialdiko](#) laguntza:

- **Maggi Garmendiak, UPV/EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako irakasleak, Mozambikera** bidaiatzeko eskaera egin zuen.
- **Edurne Iriondok, UPV/EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakasleak,** Guatemalako Gaztenpatia Proiektua bisitatu zuen Alta Verapaz departamenduan (Guatemala).
- **Rakel Oionek, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko irakasleak,** Mendozara (Argentina) bidaiatzea eskatu zuen deialdi horren bidez.



+ info.





2. Gaztenpatia programa






Gaztenpatia programa

Martxan jarri da **Gaztenpatia programaren VII. edizioa**.

Gaztenpatiak, Euskal Fondoaren eta UPV/EHUren egitasmoak, aukera ematen die unibertsitateko ikasleei beren curriculumeko edo borondatezko praktikak eta Gradu Amaierako Lanak (GRAL) egiteko Euskal Fondoaren erakunde eta entitate bazkideek Latinoamerikan garatzen dituzten proiektuetan.

Guztira, **27 ikaslek** egin dituzte (% 81,5 emakumeak, % 18,5 gizonak) beren praktikak edo GRALak El Salvador, Kolonbia eta Guatemalako garapenerako lankidetzaren barruan.

Programaren web plataforma: <https://gaztenpatia.eus>





Gaztenpatia programa

Gainera, 2023ko maiatzaren 22tik 26ra, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetan, [VI. Gaztenpatia Topaketa](#) egin da, esperientziak trukatzeko Gaztenpatia proiektuen kontraparteetako Latinoamerikako ordezkariekin.





3. Garapen Jasangarrirako Unibertsitate Lankidetzako Proiektuetarako deialdia (GUL)





Garapen Jasangarrirako Unibertsitate Lankidetzako Proiektuetarako laguntzak

Gizarteak garatzeko ezagutza funtsezkoa bada ere, pertsonok eraldatzen dugu mundua. Hori dela eta, UPV/EHUko unibertsitateko kideei zuzendutako **deialdi** honen helburua da garapen jasangarrirako **lankidetzako proiektuetan parte har dezaten bultzatzea**, proiektu horiek bidezkoagoak eta jasangarriagoak diren gizarteak lortzeko aldaketa eragin dezaten.

Deialdi horrekin diruz lagundutako zenbait proiektu:

[Garapen Jasangarrirako GUL proiektuak UPV/EHUko - Garapenerako Lankidetzako Bulegoa - UPV/EHU](#)



+ info.





4.

Garapenerako Unibertsitate Elkartasunari
eta Lankidetzari buruzko prestakuntza





Ikasleentzako prestakuntza

ONLINE IKASTAROA “Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan”

Norentzat: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan hasi nahi duten graduiko ikasleentzat.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Izena emandako pertsonen kopurua: 9. edizioa (2022/10/10-2023/11/18) eta 10. edizioa (2023/02/06-2023/03/17) euskaraz eta gaztelaniaz egin dira, eta **191 ikaslek** hartu dute parte (48 emakumeak, 143 gizonak).



+ info.





Ikasleentzako prestakuntza

ONLINE IKASTAROA "Finantza etikoak"

Norentzat: ekonomia eta enpresa adarreko graduoko eta graduondoko ikasleentzat, finantzen munduan sartu nahi dutenak etikaren, jasangarritasunaren eta elkartasunaren ikuspegitik.

Iraupena: 37,5 ordu (1,5 ECTS kreditu).

Izena emandako pertsonen kopurua: 4. edizioa (2023/02/13 - 2023/03/24) euskaraz eta gaztelaniaz egin da, eta **45 ikaslek** hartu dute parte (% 62,2 emakumeak, % 37,8 gizonak).



+ info.





Ikasleentzako prestakuntza

Beste ikastaro batzuk

UPV/EHUren irakaskuntza ikaskuntza ereduak ikasleak ikaskuntza sakona eraikitzea sustatzen du, oinarri hartuta ezagutzak eskuratzea ez ezik, gaitasunak, jarrerak eta balioak garatzea, gizarte eraldaketaren alde arduratsuak eta aktiboak diren profesional eta herritar gisa gizarteratzeko. Horregatik, 2022/2023 ikasturtean elkartasunaren eta lankidetzaren arloko prestakuntza osagarriaren aldeko apustua egin dugu, diziplina guztietako ikasleei zuzenduta eta haien prestakuntza integrala bultzatuz.

ONLINE IKASTAROA
EmantzipAkzioa:
beste mundu posible
batzuetarako teoria eta
praktika kritikoak



+ info.



IKASGELAKO ETA
IKASGELAZ KANPOKO
IKASTAROA
Garapena, Lankidetzaren
eta Trantsizio
Ekosozialerako
Teknologiaei buruzko
XXIV. mintegia

Ekosozialerako Teknologia

Transición Ecosocial

Izen-emateak **Inscripciones**
Lehenen 30 arte
Lehenen 5 arte

E-mail: info.bilbao@euskadi.isf.es
Tlf: 94 60172 26
Webs: <https://euskadi.isf.es/mintegia/>
<https://euskadi.isf.es/seminario/>

Plaza kopuru mugatua izen emate ordenaren arabera
Plazas limitadas por orden de inscripción

Aulera asleko kredituak
Créditos de libre elección

Online + Tailerak + Txangoak
Online + Talleres + Excursiones

+ info.





Irakasleentzako prestakuntza

Gaztenpatiako Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzari (POI) buruzko TAILERRA: diseinua eta inplementazio praktikoa ikasgelan

Norentzat: materialak sortu eta beren irakats lanean Garapenerako Lankidetzako Gaztenpatia proiektuak erabilia Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) bezalako metodologia aktiboak erabili nahi dituzten UPV/EHUko irakasleentzat.

Iraupena: 75 ordu (18 ordu presentzial eta 57 ordu ez-presentzial, 2022ko urtarrila - 2023ko urtarrila) (3 ECTS kreditu).

Izena emandako pertsonen kopurua: UPV/EHUko **22 irakasle** (15 emakume, 7 gizon), hainbat jakintza adarretakoak.



+ info.





5. Zabalkundea eta sentsibilizazioa





Lankidetzari eta elkartasunari buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak

Beste ekintza batzuk

UPV/EHUK bere gain hartzen du ikasleak prestatzeko lan garrantzitsua, ez akademikoki soilik, baizik eta prestakuntza integral batekin, gizarteei eragiten dieten arazoei buruzko eztabaidetan parte hartu ahal izateko justizia, ekitate, jasangarritasun eta giza eskubideekiko errespetu handiagoarekin. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da unibertsitatearen egunerokoan gogoeta egiteko eta elkartasuna eta gizarte konpromisoa bezalako balioak praktikan jartzeko aukera emango duten guneak sortzea. Horrela, 2022/2023 ikasturte akademiko honetan hemen deskribatutako ekintzak garatu dira.

Lankidetzaren eta gizarte konpromisoaren arloan, ekitaldi ugari antolatu dira beste erakunde batzuekin batera (eztabaidak, erakusketak, zineforuma...).



Nabarmentzekoa da **“Invisible Express”** film laburren lehiaketa, **“Zuen filmak mundua aldatuko du, hoberena ikusteko dago”** tematikarekin, Kultura Communication Desarrollo GGK Erekina elkarlanean antolatua. **128 ikaslek** parte hartu dute (% 67,9 emakumeak, % 32,1 gizonak).

Sariak:

- Epaimahaiaren saria: [“Esnatu”](#)
- Publikoaren saria: [“El Cambio”](#)



Ikusezina/Invisible
EXPRESS



Lankidetzari eta elkartasunari buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak

Beste ekintza batzuk

“Astindu erabili aurretik” jardunaldia



“Emakume migranteak, gure bizilagun ikusezinak” jardunaldia



“Erabateko bakearen alde borrokan. Emakumeen partaidetza bakearen lorpenean eta itzulera” mintegia Kolonbia



“Euskadi es un refugio; Los derechos humanos y su universalidad ante el reto de los desplazamientos forzados” liburuararen aurkezpena



“Peace Studies Ucranian War” mintegia



inPEACE
FINAL SEMINAR BILBAO
DATE: 1 December 2022
PLACE: Zubiria Etxea (Hegoa)
Lehendakari Aguirre 81, Bilbao
TIME: 12.00 - 14.00



Unibertsitate solidarioa:
gizarte konpromisoa





1. Zaurgarritasun egoeran dauden ikasleentzako laguntzak





Errefuxiatuei eta asilo eskatzaileei laguntza emateko programa

UPV/EHUK nazioarteko babes egoeran dauden pertsonen eskubideak bermatzen ditu

Lau jarduera ildo:

1. Egoera akademikoa erregularizatzeko eta unibertsitatera sartze-ko laguntza
2. Unibertsitate eremuko premia bereziei erantzuteko laguntza
3. Sentsibilizazioa eta eztabaida sustatzea
4. Nazioarteko babesa duten unibertsitateko kideentzako laguntza ekonomikoa eta materiala, 20.000 euroko funts baten bidez.





Errefuxiatuei eta asilo eskatzaileei laguntza emateko programa

2022/2023 ikasturtean, administrazio izapideak egin dira nazioarteko babesa duten hainbat herrialdetako (Siria, Afganistan, Errusia, Ukraina, Sahara, Peru, Kolonbia, Venezuela eta Nikaragua) **25 pertsonari** laguntzeko (% 48 emakumeak, % 52 gizonak). Laguntzak izan dira unibertsitatera sartzeko, beren ikasketak jarraitzeko eta unibertsitate eremuan dituzten premiei erantzuteko (alojamendurako, mantenuerako, garraiorako, materialak eskuratzeko... laguntza ekonomikoak). Era berean, 4 laguni alojamendua eta mantenua eman zaizkie UPV/EHUko ikastetxe nagusietan eta egoitzetan (% 100 gizonak).





Atzerriko ikasleei eta nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradun diren ikasleei ostatu emateko laguntzen deialdia

Deialdi honetan parte har dezakete Bilbon bizi diren ikasleek, baldin eta:

- UPV/EHUn graduko ikasketak egiten ari diren nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradun diren ikasleak badira.
- UPV/EHUrekin hitzarmena duten unibertsitateetatik datozen ikasleak badira, Bilboko Udalaren IV. Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileko Urteko Plan Operatiboan lehentasunezko zat jotzen diren eremu eta herrialdeetan (Saharaz hegoaldeko Afrika, Sahara, Erdialdeko Amerika, Chiapas, Kuba, Kolonbia, Ekuador, Peru eta Bolivia) kokatuta daudenetatik datozenak, eta UPV/EHUn graduko ikasketak egiten ari badira.

2022/2023 ikasturtean aurrekontua 12.000 €-koa izan da, eta Kolonbia, Guatemala, Nikaragua eta Perutik etorritako 9 laguntzatan banatu da (8 emakume eta 1 gizon).





2. Boluntarioritza. Ikasleen parte hartzea sustatzea ekimen solidarioetan





Hautazko kredituak aitortzea, elkartasun jardueren truke

Hautazko kredituak aitortu dira gizarte erakundeetan eta UPV/EHU-ren berezko programetan eginiko elkartasun eta lankidetzaz jarduerengatik.

2022/2023 ikasturtean boluntarioritza eta lankidetzaz jarduerengatik 202 eskaerari erantzun zaie (% 75,3 emakumeak, % 24,7 gizonak), eta **617,5 kreditu** aitortu dira guztira, **18.525 dedikazio orduri** dagozkionak.


Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BOLUNTARIOTZA VOLUNTARIADO

Hautazko kredituen aitortpena eskatzeko epea: 2023ko ekainak 5-16

Plazo para la solicitud del reconocimiento de créditos optativos: 5-16 junio 2023

www.ehu.eus



Ikasleek elkartasun jardueretan parte har dezaten sustatzeko ekimenak

Web mintegiak: Europako Elkartasun Kidegoa

- UPV/EHUK, Europako Elkartasun Kidegoan ziurtatutako laguntza erakundeak, parte hartzen duten ikasleak prestatu egiten ditu abiatu aurretik, eta bitartekari gisa jarduten du harrerako erakundearekin.





Ikasleek elkartasun jardueretan parte har dezaten sustatzeko ekimenak

Boluntariotzako erakunde azokak

- Inguruko erakunde solidarioak eta haien programa solidarioak ezagutzeko aukera bikaina.
- 67 gizarte erakundek parte hartu zuten 2022/2023 ikasturteko azoketan, EHUko 3 campusetan.



Uda solidarioa kanpaina

- Kanpaina horrek udan boluntario gisa lan egiteko eta opor desberdinak bizitzeko aukera guztien berri ematen du.






IKASLAGUN. Boluntariotzako programa propioa

UPV/EHUren gizarte mentoretzako programa propioa

- UPV/EHUko ikasleak Gipuzkoako babes sistemako egoitza baliabideetan artatutako haurrei errefortzu akademikoa eskaintzera joaten dira.
- Laguntza hori honetan datza: hezkuntza laguntza pertsonalizatua ematea eta esperientziak eta ezagutzak elkartrukatzea, topaketarako eta ikaskuntza sozialerako guneak bultzatuz.
- 2022/2023 ikasturtean 49 ikaslek hartu zuten parte gidari gisa: 40 emakumek eta 9 gizonek.





3. Ikasleen Biltzarra





UPV/EHUko ikasleen V. Biltzarra

“Gradu amaierako gure lanek mundua eraldatzeko balio dute” le-mapean, bistaratu eta aitortu egin nahi dira graduako ikasleek 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) inguruan egi-ten dituzten ikerketa lanak.

41 gradutako 115 komunikazio proposamen jaso ziren.

- Gizarte eta Lege Zientzietako 61 GRAL
- Ingeniaritza eta Arkitekturako 22 GRAL
- Osasun Zientzietako 13 GRAL
- Zientzietako 10 GRAL
- Arteen eta Giza Zientzietako 9 GRAL

115 lagunek hartu zuten parte (% 75,6 emakumeak, % 24,4 gizonak).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UPV/EHUko IKASLEEN V. BILTZARRA

V CONGRESO DE ESTUDIANTES DE LA UPV/EHU

Gure Gradu Amaierako Lanek (GrAL) mundua aldatzeko balio dute

Nuestros Trabajos Fin de Grado (TFG) sirven para transformar el mundo

www.ehu.eus



UPV/EHUko ikasleen V. Biltzarra

Sariak banatzeko ekitaldia egin zen 2022ko azaroaren 3an, Bizkaia Aretoko Mitxelena gelan, eta urteko 8 GRAL onenak saritu ziren, bi ardatz tematiko bakoitzeko (Pertsonak, Planeta, Oparotasuna, eta Bakea eta Aliantzak) eta kongresuan egin zen talde-dinamikan aurkeztutako lanik onena.

Ondorengo estekan ikus daitezke sari guztiak.





4. Boluntariotzako prestakuntza





Boluntariotzaren hastapenak. Prestakuntza gizarte eraldaketarako (onlineko ikastaroa)

Norentzat: UPV/EHUko unibertsitateko kideentzat (ikasleak, IRI, AZPko langileak, EHUalumni)

Iraupena: 12,5 ordu (0,5 ECTS kreditu).

Izena emandako pertsonen kopurua: 650 lagunek baino gehiagok eman dute izena (559k gaztelaniaz, 103k euskaraz). 493 ziurtagiri eman dira (419 gaztelaniaz, 74 euskaraz).





5. Zabalkundea eta sentsibilizazioa





Zabalkunderako ekintzak eta sentsibilizaziorako jarduerak

OZEANO belaunaldia: EKIN!

- Zaborra biltzea hondartzan, Surfrider GKEarekin lankidetzan.
- Urteko jarduera (2023an 25 lagunek hartu zuten parte).



Klima eta osasun krisiari buruzko hackatoia

- Mugarik Gabeko Medikuek GKEarekin lankidetzan.
- UPV/EHUko talde parte hartzaileak 2023ko edizioa irabazi du.






Zabalkunderako ekintzak eta sentsibilizaziorako jarduerak

INTI ibilbidea

- Konprometitutako abentura, ikuspegi kritikoa duena.
- UPV/EHUK ibilaldi horretan parte hartzeko laguntzak eskaintzen ditu: UPV/EHUko 2 ikaslek hartzen dute parte.



Elikagaien bankua

- Maiatzeko eta azaroko elikagai bilketa handietan laguntzea.





Zabalkunderako ekintzak eta sentsibilizaziorako jarduerak

GAZTEBI - Bineta erakusketaren aurkezpena

Iraunkortasuneko Zuzendaritzak GAZTEBI bineten erakusketan parte hartu du. UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak eta GEZKI Institutuak antolatu dute, Estibaliz Sáez de Camarak lagunduta.



2030 Agendaren txertaketa

U4IMPACT: EGIN ZURE GRAL/MAL GJH INPAKTUAREKIN

Gizartean eta ingurumenean eragina duten proiektuak garatzeko ikasleak eta erakundeak konektatzen dituen plataforma bat da U4impact:

- GJHekin konprometitutako proiektu berritzaileari aplikatzen zaio.
- Proiektu erreal batean lan egiten du, gizarte edo ingurumen arloko premia bati irtenbidea emateko.
- Lan munduan eskatutako gaitasunak garatzen ditu.

2022/2023 ikasturtean: UPV/EHUko 160 ikaslek hartu dute parte plataforman.



EHUgune





EHUgune – Hausnarketarako gune irekia

Euskal unibertsitate publikoak sortzen eta biltzen duen ezagutza kezka sozialen zerbitzura jartzea, kultura zientifikoa eta eztabaidaren kultura sustatuz.

EHUgunek ikerketa eta berrikuntza arduratsuaren Europako politika garatzen eta sendotzen laguntzen du. Politika horren helburua da zientzia irekiagoa lortzea, zientziaren alorraren eta gizartearen artean dagoen arrakala murriztea, eta zientzia inklusiboagoa, gardenagoa eta elkarlanekoagoa dena lortzea, parte hartze soziala sustatuz eta ikerketa gizartearen premia larrienei erantzunak bilatzera bideratuz.






EHUgune – Hausnarketarako gune irekia

EKONO GUNE: EHUgune – Ekonomia eta Enpresa Fakultateko eztabaidagunea

EHUguneko Konpromiso eta Eragin Sozialeko zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen baterako ekimena, ikasleen artean eztabaida eta hausnarketa kritikoa sustatzeko ekonomiaren eta enpresaren esparruan interes berezia duten gai ei buruz.



ZUZENGUNE: EHUgune – Zuzenbide Fakultatea – Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko eztabaidagunea

UPV/EHUK eta EAEko Auzitegi Nagusiak gizarte intereseko hainbat gairi buruz elkarrekin hausnartzeko foroa, sistema desberdinetako profesionalen arteko elkarriketa sustatzeko, herritarrek gai horiei buruz dituzten kezak argitu ahal izateko.





Jarduerak – EHUgune

Posible da hazkunde ekonomiko mugagabea mundu mugatu batean? Erromako Klubaren txostenaren (“Hazkundearen mugak”) 50. urteurrena.

Muga naturalen eta hazkunde ekonomikoaren arteko erlazioari buruzko eztabaida, batez ere gaur egun bizi dugun mundu mailako ingurumen krisiaren testuinguruan. Antonio Valerok, Maria José Gutiérrezek, Felipe Serranok eta Roberto Bermejok hartu zuten parte mahai inguruan.





Jarduerak – EHUgune

Energia berriztagarriak Euskal Herrian I: gatazka edo aterabidea? (Donostia)

Eztabaida lasaiak eta zentzuzkoak bideratzen laguntzeko, hainbat mahai inguru antolatu ziren, gaiari buruz egon daitezkeen diskurtso eta gogoeta guztiak laburbiltzen eta helarazten saiatzeko. Hiru egun eta hiru leku aukeratu ziren ahalik eta jende gehienak izan zezan bertaratzeko aukera. Donostian egindako lehenengo mahai inguruan honako hauek hartu zuten parte: Aitor Aldasoro, Alvaro Campos, Alazne Urruti, Gotzone Sestorain eta Hodei Arzak.

Energia berriztagarriak Euskal Herrian II: gatazka edo aterabidea? (Gasteiz)

Eztabaida lasaiak eta zentzuzkoak bideratzen laguntzeko, hainbat mahai inguru antolatu ziren, gaiari buruz egon daitezkeen diskurtso eta gogoeta guztiak laburbiltzen eta helarazten saiatzeko. Hiru egun eta hiru leku aukeratu ziren ahalik eta jende gehienak izan zezan bertaratzeko aukera. Gasteizen egindako bigarren mahai inguruan honako hauek hartu zuten parte: Rebeca González, Pablo Lorente, Mikel Otero, Aritz Otxandiano eta Aitziber Sarobe.

Energia berriztagarriak Euskal Herrian III: gatazka edo aterabidea? (Bilbo)

Eztabaida lasaiak eta zentzuzkoak bideratzen laguntzeko, hainbat mahai inguru antolatu ziren, gaiari buruz egon daitezkeen diskurtso eta gogoeta guztiak laburbiltzen eta helarazten saiatzeko. Hiru egun eta hiru leku aukeratu ziren ahalik eta jende gehienak izan zezan bertaratzeko aukera. Bilbon egindako hirugarren mahai inguruan honako hauek hartu zuten parte: Julen Rekondo, Jose Ramón Becerra, Cristina Pizarro, Mirene Begiristain eta Iñigo Alsola.



Jarduerak – EHUgune

Nola kokatuko gara adimen artifizialaren iraultza berriaren aurrean?

Mahai inguru horretan, adimen artifizialaren, etikaren eta hezkuntzaren arloko aditu nabarmenek elkarrekin eztabaidatu eta hausnartu zuten teknologia horren ondorioei buruz, eta horren potentziala nola aprobeitatu dezakegun aztertuz, aurkezten dituen erronkei nola aurre egin aztertzen zuten heinean. Daniel Innerarityk, Urtza Garayk, Carlos de Aldamak eta Mikel Iruskietak hartu zuten parte mahai inguruan.





Jarduerak – EHUgune

Zerga politikaren zeregina desberdintasuna murrizteko: #taxtherich!?

Gure gizartean gero eta handiagoa den errenta desberdintasuna murrizteko, zerga politika desberdinen abantailak eta desabantailak aztertzeke eta Estatuaren beharrak gizarte ekitatearekin eta justizia ekonomikoarekin nola orekatu daitezkeen aztertzeke zerga sistemak duen zereginari buruzko eztabaida. Mercedes Vallejok, Carlos Cruzadok, María Victoria Campelok eta Jesús Oleak hartu zuten parte mahai inguruan.





Jarduerak – EHUgune

Sexu askatasunaren babes penala: 10/2022 Lege Organikoa eztabaidagai.

Mahai inguru horretara hausnarketa juridikoko eta ezagutza kriminologikoko adituak gonbidatu ziren, baita magistraturakoak ere, justizia sistemaren erronka iraunkorrei buruz eztabaidatzeko, eremu horretan eskubideek aurrera egitea oztopatzen duten ikusmolde kultural errotuen garrantziaren aurrean. Mahai inguruan Elena Larraurik, Adela Asuak eta Iñaki Subijanak hartu zuten parte.





Jarduerak – EHUgune

VI. Laborategia Bakearen Ekonomia / Euskal Enpresa eta Giza Eskubideak (2023)

Urteko laborategi hori gune bat da sektore pribatuak, gobernuek eta administrazioek, unibertsitateek eta gizarte zibilak informazioa partekatzeko, hitz egiteko eta Ekonomiak Bakeari egiten dion ekarpenaz eta euskal enpresa eta erakundeen giza eskubideen inguruko jardunaz berdintasunez hausnartzeko. Honako hauek hartu zuten parte edizio horretan: Eurídice Cabañes, Isabel García, Beatriz Aibar, Almudena Moreno, Nerea Magallón, Antoni Pigrau, Alvaro Ramírez eta Gorka Mendizabal.





Eragin soziala





Eragin soziala

UPV/EHUK irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia proiektuak ditu abian, unibertsitateko kideen ekintzek gizartean duten eragina kudeatzeko eta neurtzeko mekanismoak ezartzeko, gizarteari egiten dizkion ekarrien eta ekarpenen balioa frogatzeko informazioa eta ebidentziak izate aldera. Eta UPV/EHU eragin soziala neurtzeko eta kudeatzeko erreferente gisa kokatzeko mundu mailan.



Helburuak:

- **Unibertsitatearen eraldaketa sustatuko duten ekintzak ahalduntzea.** UPV/EHUK sortzen duen eragin sozialari buruz ikertzea, ezagutza zientifikoa lantzeko eta goi mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan eragin soziala kudeatzeko eta neurtzeko proiektuen buru izateko.
- **Inpaktu kultura sustatzea.** Arrakasta izan duten kasu errealek identifikatzea eta unibertsitateko kideen artean eragin esanguratsua sortzen ari diren UPV/EHUren barruko esperientzia zehatzetatik ikastea.
- **Lankidetzeta eta networkinga sustatzea.** Irakaskuntzan, ikerketan eta transferentzian eragin soziala sortzeko interesa duten UPV/EHUko unibertsitateko kideei laguntzea eta horiek elkarren artean konektatzea.



Lankidetzak



Erakunde publikoekin lankidetzak eta sareak





Lankidetzak beste erakunde batzuekin







A photograph of four people sitting on a beige sofa in a modern office environment. From left to right: a woman with long brown hair wearing a black blazer over a grey top and white pants; a man with glasses and a beard wearing a blue blazer over a white shirt and light blue jeans; a woman with dark curly hair wearing a white blazer over a white top and dark blue jeans; and a man with curly hair and a mustache wearing a blue short-sleeved shirt and dark pants. They are all looking towards the camera. The background shows office shelves and windows.

Eman eta zabal zazu!

eman eta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL